

ISSN: 2530-6561
2025eko abendua
Bilbao

hagoak zabalduz

Hegoa, Nazioarteko
Lankidetzaren eta
Garapenari Buruzko
Ikasketen Institutua

Universidad del
País Vasco /
Euskal Herriko
Unibertsitatea
UPV/EHU

Kazetaritza feminista: intersektionalitatea txertatzeko ahalegina

Maria Gorosarri González

Kazetaritza feminista: interseksionalitatea txertatzeko ahalegina

Maria Gorosarri González
maria.gorosarri@ehu.eus

EHUko irakaslea eta ikertzailea

Aurkibidea

1. Sarrera	8
2. Feminismoa eta feministak	9
3. Kazetaritza profesionala	12
4. Ikuspegi feministadun kazetaritza	14
5. Kazetaritza feminista	15
5.1. Helburua	15
5.2. Gizonen pribilegioak	16
5.2.1. Pribilegiorako eskubidea	16
5.2.2. Miresmenerako pribilegioa	17
5.2.3. Jakintzarako pribilegioa	18
5.2.4. Aginterako pribilegioa	18
5.2.5. Arreta medikorako pribilegioa	18
5.2.6. Lan erreproduktiboetarako pribilegioa	19
5.2.7. Emakumeen eta neskatilen gorputza kontrolatzeko pribilegioa	20
5.2.8. Emakumeekin sexuan jarduteko pribilegioa	20
5.2.9. Onartzeko pribilegioa	21
6. Kazetaritza feminista interseksionala	22
6.1. Zapalkuntzak eta bereizkeriak, menderakuntzaren oinarriak	22
6.2. Pribilegio zuria	24
6.3. Klase-Pribilegioa	29
7. Ondorioak eta eztabaida	30
8. Bibliografia	31

Erredakzio kontseilua

Zuzendaritza: Irati Labaien

Amaia Garcia Azpuru

Kideak: Eduardo Bidaurratzaga

Xabier Gainza

Iker Etxano

Itziar Mujika

Unai Villena

Iker Zirion

hegoak zabalduz euskarazko material bildumak ikuspegi zabal batetik garapenarekin lotutako askotariko gaiak jorratzea du helburu. Testuak didaktikoak eta dibulgazio mailakoak dira, eta gaien inguruko sarrera edo ikuspegi orokorra ematen dute.

Kazetaritza feminista: interseksionalitatea txertatzeko ahalegina

Egilea: Maria Gorosarri González

hegoak zabalduz - 43. zk. 2025eko abendua

ISSN: 2530-6561



www.hegoa.ehu.eus

EHU. Zubiria Etxea
Lehendakari Agirre Etorbidea, 81
48015 Bilbao

Tel.: 94 601 70 91

hegoa@ehu.eus

EHU. Carlos Santamaría Zentroa
Elhuyar Plaza, 2
20018 Donostia-San Sebastián

Tel. 943 01 74 64

hegoa@ehu.eus

EHU. Arabako Campuseko Liburutegia
138. posta-kutxa
Nieves Cano, 33
01006 Vitoria-Gasteiz

Tel. 945 01 42 87

hegoa@ehu.eus

Diseinua eta Maketazioa: Marra, s.l.

hegoak zabalduz material bilduman argitaratzen diren testu guztiak,
Creative Commons en lizentzia honekin argitaratzen dira:



Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Espainia.

Lizentzia osoa: <https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/deed.eu>

Finantzatzailea:



Gipuzkoako Foru Aldundia

Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua
Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes

Kazetaritza feminista: interseksionalitatea txertatzeko ahalegina

Laburpena: Kazetaritza feminista definitzeko, helburuei eta eginkizunei erreparatzea proposatzen du artikulu honek. Horretarako, pribilegioak borrokatzeko egitekoak zehazten du kazetaritza feministaren esparrua. Kate Mannek (2020) identifikatutako gizonen bederatzi pribilegioak arbuiatzen dituen kazetaritza feminista eraginkorra da emakumeen zapalkuntza salatze eta gizarte berdinzaleagoa eraikitze. Bide horretan, interseksionalitatea kontuan hartu barik, hainbat emakume alboratuko lituzke. Horregatik, menderakuntza-sistemaren zapalkuntzak (sexu/generoa, arrazakeria eta klasea) ez ezik, gorputzaren normatibitateak dakartzan beste bereizkeriak ere gainditu behar ditu kazetaritza feminista interseksionalak.

Gako hitzak: kazetaritza feminista; interseksionalitatea; kazetaritza aktibista; objektibotasuna; indarkeria matxista.

Abstract: To define feminist journalism, this article proposes to look at its goals and tasks. To this end, the task of fighting privilege defines the scope of feminist journalism. Feminist journalism that rejects the nine privileges of men identified by Kate Manne (2020) is effective in denouncing the oppression of women and building a more egalitarian society. In this way, without taking intersectionality into account, it would bias many women. Therefore, intersectional feminist journalism must overcome not only the oppression of the system of domination (sex/gender, racism and class), but also other discriminations that arise from the normativity of the body.

Key words: Keywords: feminist journalism; intersectionality; advocacy journalism; objectivity; gender violence.

1. Sarrera

Kazetaritza profesionalak matxismoa areagotzen duten praktikak erakutsi ditu, indarkeriaren berri ematean, batez ere. Ikuspegi feministadun kazetaritzak beste gabezia batzuk erakutsi ditu, ardura hori pertsona bakar baten bizkarrean kokatzen duelako. Gabezia horiek gainditzeko proposamena da testu hau.

Horretarako, gizonen pribilegioak borrokatzeko kazetaritza proposatuko da. Pribilegioa da, talde baten aurkako zapalkuntza dela-eta, zapalkuntzarik gabeko taldeko kide guztiek lortzen duten abantaila. Horregatik, kazetaritza feministak berezkoa du hiru zapalkuntzak gogoan dituen ikuspegi interseksionala, gizonen pribilegioak ez ezik, pribilegio zuria eta klase pribilegioa ere borrokatuz.

Era berean, gizarteak baztergarritzat hartzen dituen gorputzen aurkako bereizkeriak ere kontuan hartzen ditu. Azken horiek ez dute pribilegiarik ekartzen, ezaugarri horiek ez dituztenei abantailarik ematen ez dielako, bai ordea bereizkeriarik ez pairatzeko baimena. Bereizkeriak borrokatzea kazetaritza feministaren egitekoa da, berdintasuna ez delako berdinkeria, baizik eta izateko askatasuna.

Horrenbestez, argitalpen garrantzitsuenen berrikuspen akademikoan oinarrituta, ebidentzia mediatiko adierazgarriak ekarriko ditut eztabaidara. Datu okerrak egiaztatzeko dokumentazio lana egin dut, Interneteko bilatzailea eta hedabideetako bilatzaileak erabiliz. Era berean, hainbat hizkuntzatan idatzitako lehen mailako iturrietara jo dut, haien ekarpenekin esparru teoriko komun bat sortzen laguntzeko, kazetaritza feminista kontzeptua edukiz betetzeko.

2. Feminismoa eta feministak

Feminista terminoa inoiz ez bezala zabaldu da azken hamabost urteetan, eta identitate pertsonalarekin lotzeak bere eduki politikoa hustea eragin dezake (Gorosarri, 2021). Artikulu honen helburua da kazetaritza feministaren definizio orokorra ematea, egungo kazetaritza-praktikek matxismoa betikotzen dutelako.

Feminismo berba Hubertine Auclert-ek sortu zuen 1882an, bere burua feministatzat aldarrikatu zuen lehen aktibistak, zuzentzen zuen *La Citoyenné* egunkarian. Ez da harrigarria kazetaritza feministarako definizio komun bat ez egotea, feminismoak berak ere ez baitu onartutako definizio bakar bat. Euskaltzaindiaren Hiztegiak honela definitzen du feminismoa: "Emakumearen eta gizonaren eskubide berdintasunaren alde egiten duen doktrina". Feministek, baina, ez dute berdintasunik aldarrikatzen, askatasunik gabe ez bada (Reverter, 2022: 18). Aldarrikapenaren kontzientzia hori aktibismoarekin lotzen da. Horrela, patriarkatuari aurre egitean, emakumeek beren berdintasunik eza sentitzen dute, eta dagozkien eskubideengatik borrokatzen dira. Esnatze feministak, teoria feminista ezagutu aurretik ere, kontzientzia sortzen du. Betaurreko moreen metafora da, Gemma Lienasek 2001ean planteatua, Carlotaren amonak esanda: "Betaurreko moreak jantzi behar ditugu, eta begi berri batzuekin begiratu behar diogu guztiari, begi feministekin" (Lienas, 2019 [2001]: 23).

Ondorioz, feminismoaren definizioak bi alde dauzka: kritikaren ardura (gizartea sexista dela ulertzea) eta betebeharrak eraikitzailea edo *praxi feminista* (hura aldatzeko beharra). Bi alderdi horiek gabe, feminismoak ez du ibilbiderik. Are gehiago, teoria eta praxia bereiztea zapalkuntza estrategia da.

Emakumeok ez gara, emakume izateagatik, feministak, eta ez dugu, berez, feminismoarekin egiten. Era berean, emakumeek egindako edo emakumeek zuzendutako kazetaritza, biak "kazetaritza femeninoa" izendatu arren, ez dira berez kazetaritza feminista, "bere edukiak emakumeen eskubideak defendatzen ez baditu" (Kamal, 2021: 417).

Horregatik, emakume kazetariak ez dute berez kazetaritza feministarik egiten; feministek baino ez dute egiten kazetaritza feminista. Izan ere, Gerda Lernerrek (1993) formulatutako kontzientzia feministaren kontzeptuak, emakumeen askapenaren prozesu historikoaren ondorioa izanik, teoria eta praxia biltzen ditu. Honela definitu zuen Lernerrek:

"Kontzientzia feminista honetan datza: (1) emakumeak zapaldutako talde batekoak direla onartzea eta, talde horretako kide moduan, bidegabekeriak jasaten dituztela; (2) zapalkuntza hori naturala ez dela aitortzea, sozialki eragindakoa baizik; (3) ahizpatasun-zentzua garatzea; (4) emakumeek beren egoera aldatzeko helburuak eta estrategiak autonomiaz zehaztea; eta (5) etorkizunari buruzko ikuspegi alternatiboa garatzea [emakumeek, gizonek bezala, autonomiarekin eta autodeterminazioarekin biziko diren gizarte-antolaketa buruz]." (1993: 14) [nire itzulpena].

Horrela, kontzientzia feministaren sorreran hiru maila bereizten dira (Gorosarri, 2021). Lehen maila *sentimendu feminista* da, lehen puntuak jasotzen dena, milaka urtean zehar emakumeen aurka egindako diskriminazioaz jabetzea. Bigarren maila Lernerren sailkapenaren bigarren puntuak azaldutako *identitate feminista* da. Hau da, emakumeenganako diskriminazioa gizarte-antolakuntzaren ondorioa dela onartzea. Azkenik, kontzientzia feministaren sorreraren hirugarren mailak ahizpatasunaren kontzeptu feminista aipatzen du, gainerako emakumeenganako estereotipo sexistak gainditzea dela ulertuta, eta ez emakume guztiak maitatzeko beharra. Horrekin batera, emakumeen jardun ez-mistoa eta praxi feministaren betebeharrak eraikitzailea aipatzen ditu Lernerrek.

Sailkapen horrexek azal dezake gizarteak aldarri feministekin daukan konpromisoa. Lehenik eta behin, oinarritzko legeak sexu-bereizkeriarik ezaren printzipioa ezarri zuten: 1948ko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala (2. art.), 1958ko Frantziako Konstituzioa (1. art., 2008an aldatua) eta 1978ko Espainiako Konstituzioa (14. art.). Horrela, sentimendu feminista aipatzen dute, emakumeenganako diskriminazio historikoa azaltzen duena. Kazetaritzan, sentimendu feminista kazetaritza-eredu profesionala litzateke. Horrela, legeak agintzen duen bezala, hedabideek gai jakin batzuei arreta berezia eskaintzen diete, gizarteak balio horiek sustatu behar dituelako, adibidez, Euskadi Autonomia Erkidegoko (EAE) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legeak (4/2005) agindutakoak.

Orduan, kazetaritzak onartu du emakumeenganako diskriminazioa ezabatzea bere helburu ere egitea. Hau da, kazetaritzarekin defendatu beharreko auzia da, kazetaritza-lanbidearen betebeharrak ekintzaileak azpimarratuz. Are gehiago, zenbait lorpen historiko kazetari askoren lan ekintzaileari esker bakarrik izan dira posible, hala nola sufragio unibertsalerako eskubidea, Hubertine Auclertek *La Citoyenne* egunkarian ere defendatu zuena. Lernerren sailkapena kazetaritzara ekarri, kazetaritza profesionala sentimendu feminista bere egiten duen kazetaritza da. Kazetaritza ona egiteko agindu profesionali jarraitzen die, emakumeek diskriminazio historikoa jasan dugula ulertuta.

Bigarrenik, identitate feminista eskubideen berdintasunaren adierazpen legal hutsa baino pauso bat haratago doa, eta diskriminazio horren izaera erabat soziala azpimarratzen du. Ondorioz, identitate feministak (norbere buruari feminista esateak) ez dakar ahizpatasunik, ez ekintza politiko edo sozialik. Horregatik, esateko modu berri bat proposatu zuen bell hooks aktibistak (2015: 31): feminista izatea baino, feminismoa defendatzea. Horrela, ikuspegi feminista duen kazetaritzak bere burua feministatzat jotzen du, ulertzen baitu emakumeen diskriminazio historikoa ez dela naturaren ondorioa, arrazoi historiko-sozialen emaitza baizik.

Azkenik, kontzientzia feministak konpromiso politiko eta soziala eskatzen du, emakumeen egoera aldatuko duten helburuak eta estrategiak zehazteko (Lernerren definizioaren hirugarren eta laugarren puntuak), eta antolaketa sozial alternatiboa, non gizonak eta emakumeak libre izango diren (bosgarren puntuak). Beraz, ez da nahikoa gizarte matxistari kritika egiteko ardura. Agenda feministak betebeharrak eraikitzailea ere badu: kontzientzia feministaren ezaugarria den praxi feminista. Kazetaritza feministak emakumeenganako gizarte-menderakuntza ezabatzeko eta berdintasunezko gizarte baterantz aurrera egiteko balio du. Horregatik, kazetari feministek kazetaritza feminista egiteko betebeharrak dute, hau da, kalitatezko kazetaritza, emakumei irizpide sexistetan oinarrituta begiratuko ez diena (ahizpatasuna), mugimendu feministaren helburuak eta estrategiak bere egingo dituenak, eta gizartearen ikuspegi alternatiboa garatuko duena.

Gure testuinguruan, euskarazko kazetaritza feministaren historiak hizkuntza gutxituaren mugak erakusten ditu. Hasteko, idatzizko aldizkari feministak elebidunak izan ohi dira. Gutiérrez Pazek eta Fernández Astobizak (2021) hauek jaso dituzte, besteak beste: Bizkaiko Emakumeen Asanbladaren *Geu Emakumeok* (1985-1996); lesbiana feministen kolektiboek sortutako *Sorginak* (1986-1994 eta 1998-2000); Arratiako (Bizkaia) *Ilgora* (1990-1996); egunkari itxurako *Andra* hilabetekaria Bilbon (2000-2004, 2019tik andra.eus sareko hedabide moduan); *Trazos de Igualdad-Berdintasunaren ikurra* (2007-2008); Bilgune Feministaren *Emaraun* (2002-2020); Bilboko Mundubat fundazioaren *Hedra/Huntza* (2019-2020, 2022); eta Azpeitiko (Gipuzkoa) Emakumeen Txokoaren *Zirrikotik* (2019-2023).

Irratian, euskara hutsezko saioak egin dira. Erreferentziazkoa izan zen Euskadi Irratiko *Andromeda* (2009-2012). Ondoren, hainbat etorri dira, besteak beste, *Sorginen Leizea* (2011-2014) eta *Emarock* (2012-2014), Bilboko Irola Irola irratian; *Gonekin Ero Bero* (2011-2015), Antxeta Irratian (Hendaia) eta Arrosa Sarean; *Emesutan* (2012tik), Donostiako Ttan Ttakun Irratian; *Txibierroak Uluka* (2012tik), Bergarako (Gipuzkoa) Txapa Irratian; *Amapola Morea* (2013-2017), Oiartzun Irratian eta Antxeta Irratian (Hendaia); *O no será - Edo ez da izango* (2014tik), Gasteizko Hala Bedi Irratian; eta *Trabeskalea* (2019tik), Bilbo Hiria Irratian (ibidem).

Sareak hedabide-eredu berriak eta eredu berritzaileak ekarri dizkigu. Alde batetik, agerkarien artean zabalkunderik handiena duena *Pikara Magazine* da, 2010ean sortua. *Klitto!* (2015-2021) euskara hutsezko lehen agerkaria izan zen. Gainera, sareak *Andraren* ibilbidea ahalbidetu du (2019tik). Beste aldetik, irrati-podcastak sortu dira, hala nola *Berria FM* (2019tik); *Emakume sindikalistak frankismoaren garaian* (2020) eta *Ahapatik* (2020tik), Antxeta Irratian (Hendaia); eta *Lokatza* (2021), EiTbN (ibidem).

3. Kazetaritza profesionala

Kazetaritza profesionalaren helburua da lege-agindua betetzea. Sentimendu feminista duten kazetariak emakumeenganako diskriminazioa bidegabea dela uste dute. Hala ere, *Global Media Monitoring Project* (GMMP) ekimenak kalkulatu du 62 urte beharko ditugula oraindik emakumeen agerpena albisteetan protagonista diren gizonen presentziarekin parekatzeko; egungo erritmoan, egoera hori ez da 2087ra arte iritsiko. Europan, albisteetan protagonistetan eta iturri nagusietan, gizonen gehiegizko ordezkaritza berrien % 72ra iristen da. Espainiaren kasuan, gehiegizko ordezkaritza hori % 74ra igo da azken bost urteetan, eta Frantzia % 69,2koa da (Macharia, 2021).

Suediako irrati-difusio publikoak (SVT), Västerbotten-erako tokiko edizioan, albisteetan genero-berdintasuna lortzeko ahalegina egin zuen (2001 eta 2006 bitartean). Ondoren, albisteetan genero-oreka justuagoa izan zenean, inpaktu sozial handiagoa lortu zen, emakumeek albiste gehiago kontsumitu zutelako, gizartearen parte sentitu baitziren. Aldi berean, gizonen kontsumo-tasak ez ziren jaitsi hedabideek genero-errealitate orekatua islatu zutenean.

Kazetaritza profesionalari antzemandako gabezia nagusietako bat genero-indarkeriari buruzko informazioa izan da, hau da, bikote-harreman baten testuinguruan gertatzen den emakumeen aurkako indarkeriari buruzkoa, Espainiako 1/2004 Legeak zehaztutakoari jarraikiz. Emakunderekin 2016an Kode Deontologikoa sinatu zuten euskal hedabideetako albisteetan % 3,7k bakarrik bete zituen, 2023an, han jasotako agindu guztiak. Are gehiago, telebista eta irratiko izenburuetan eta lehen orrian eta agerkarien lehen pantaila-irudian agertu ziren albisteetan % 2,04k bakarrik bete zuen Emakunderen Kode Deontologikoa (Gorosarri, 2025).

Kasu paradigmaticoa dira ustezkokeriak, hau da, "ustez" eta "ustezko" berbak neurrigabeen erabiltzea, emakumeen sinesgarritasuna zalantzan ipini arte. 1996-2016 bitartean, lege-hausteei buruzko albisteetan, "ustez" eta "ustezko" berbak zituztenak sexu/generoaren arabera sailkatuz gero, indarkeria matxistari buruzko albisteetan gizonen lege-hausteeetan baino bi bider gehiago izan ziren ustezkokeriak. Are larriagoa da, Espainiako 1/2004 Legeak babesten dituen kasuetan, ustezkokeriak halako hiru izan zirela. Horrenbestez, legea indarrean sartu zenetik, ustezkokeriak apaldu beharrean, *El País* eta *El Mundo* egunkarietan hogeitaz biderkatu ziren (ibidem, 2021).

Euskal Herriko datuekin alderatuz gero, egoerak hobera egin ez duela ikusten dugu. 2023an Euskal Herrian gizon batek hildako bere bikotekidea edo bikotekide ohiaren inguruan berri ematean, albisteetan % 62,5ek, gutxienez, ustezkokeria bat zuen. Gainera, emakume kazetariak gizonetakoekin baino ustezkokeria gehiago esaten dituzte. Egiatzatuta geratzen da, beraz, emakume kazetariak ez dutela kazetaritza feministarik egiten (ibidem).

Larriagoa da Euskal Herriko erdarazko albisteetan laurden batek "ustezko eraso" esamolde okerra ["erasoa" esan beharrean] zuela eta euskarazko albisteetan % 18,18k ere bai. Era berean, "ustezko biktima" esamolde gaitzesgarria ["biktima" edo "salatzaile" deitu beharrean] erdarazko albisteetan % 2,02an agertzen da. Euskarazko albiste batean ere ez zen azken ustezkokeria hori azaldu (ibidem).

Illo beretik, hedabideek ez dute emakumeen aurkako indarkeria arazo larritzat erakusten. ETaren indarkeriak Euskal Herriko hedabideetan eragiten zuen arreta ez da indarkeria matxistarekin gertatzen. Biktimen kopuruari erreparatuta, ETaren indarkeriak zeukan arreta informatiboa eskatu dute hainbat egilek indarkeria matxistarako ere. Izan ere, 2003tik 2016ra, Espainian 880 gizonek beren bikotekide emakumezkoa hil zuten, ETak 1968tik 2010era bitartean hildako 843 biktimen langa gaituz. 2025ean, dagoeneko, Euskal Herrian, EAEko Berdintasunerako Legea indarrean egon den azken hogeitaz urtean, 130 gizonek beren bikotekidea edo bikotekide ohi hil dute, baita 13 ume ere (Berria, 2025).

Hala ere, indarkeria matxistari buruzko albisteen kopurua ETAre indarkeriarena baino txikiagoa izan da. 2004 eta 2010 artean, ETAre azken urteak Espainiako Genero Indarkeriaren 1/2004 Legearekin bat etorri ziren aldian, ETAk hamabi pertsona hil zituen. Datu horri buruzko albisteak bikotekidea edo bikotekide ohia erail zuten 467 gizonen albisteen halako bi izan ziren (Gorosarri, 2025).

4. Ikuspegi feministadun kazetaritza

Ikuspegi feminista edo genero-ikuspegia duen kazetaritzak ulertzen du emakumeen desberdintasun historikoa, hain zuzen ere, sexismoari zor zaiola. Bere egiten du, beraz, teoria feministaren zutabea. Kazetaritza horren ekarpen nagusietako bat izan da erredakzioan genero-zuzendaria sartzea. Ameriketako Estatu Batuetako (AEB) *The New York Times* egunkariak 2017an lehen genero editorea izendatu zuen eta eduki feministako sail bat sortu zuen. Jarraian, gure inguruan, beste hedabide batzuek ere hartu zuten figura hori bera: *El País* (2018), *Eldiario.es* (2018), RTVE (2018), RTCV – Radio Televisión Canaria (2018), Espainian; Mediapart (2020) eta AFP (2022), Frantzia. Euskal Herrian *El Correok* 2022an M. José Tomé kazetaria izendatu bazuen ere, dagoeneko ez dabil ardura horietan (ibidem, 2024).

Figura horren izendapena oso positibotzat jo da. Izan ere, genero-zuzendariak lortu dute gizonen gainordezkartza jaistea, iturri eta iritzi-artikuluen egileena ere bai. Hala ere, hedabideetan genero-zuzendaritza ez da nahikoa izan kazetaritza-ekoizpenean ikuspegi feminista sartzeko. Genero-kontuak, beraz, pertsona bakar batentzat gordeta geratzen direnez, genero-zuzendariak berek adierazten duten bezala, lan-karga handiak zailtzen ditu haren funtzioak. Genero zuzendaritza daukaten hedabideek ere feminismoari buruzko datu okerrak zabaldu dituzte, besteak beste, Betty Friedanen *The Feminine Mystique* (Feminitatearen mistika) lanak Pulitzer Saria lortu izana eta Kate Millettek "pertsonala politikoa da" leloa sortu izana (ibidem, 2021).

Azken urteetan, gainera, beste eztabaida bat sortu da, biktimaren testigantzarekiko jarreraren inguruan. Indarkeria matxistaren salatzailea albiste-iturria denean, haren testigantza hark nahi duen moduan jasotzeko agindua bete edo kazetaritza-irizpideak nagusitu behar diren ez dago argi. Eztabaida abiatu zen egunkari bateko genero-arduradunak salatzaileak eman nahi zituen datuak jaso zituenean, indarkeria matxistaren berri emateko arau deontologikoak urratuz, biktima eta bere ingurua identifikagarri egiten zuten datuak eta erasoaren detaileak emanez (ibidem, 2025). Euskal gatazkak euskal feminismoan eragin handia eduki du. Besteak beste, lelo feministek ("feminismoa da bide bakarra") aurrerago testuinguru armatuan erabilitakoen moldaketa dira ("borroka da bide bakarra"). Gauza bera gertatzen da "Gora borroka feminista!" aldarriarekin, "Gora ETA militarra" oihuaren doinua partekatzen duelako (ibidem, 2021). Ikusteko dago Espainiako Barne Ministroa izandako Jaime Mayor Oreja donostiarrak (Alderdi Popularra, PP) zabaldutako "biktimek beti daukate arrazoia" irizpidea feminismoan ere eragina eduki duen edo arau deontologikoak nagusituko diren.

5. Kazetaritza feminista

5.1. Helburua

Kazetaritza profesionala eta ikuspegi feministadun kazetaritza ez badira matxismoaren zabalkundea gelditzeko eraginkorrak, emakumeen eskubideak (giza eskubideak diren neurrian) defendatuko dituen kazetaritza behar dugu. Kazetaritza feminista kontzientzia feminista duten kazetariak egikaritzen dute, eta praxi feminista islatzen du, hau da: gizon eta emakumeen berdintasuna eragozten duten oztopoak kritikatzeko ardura eta gizarte berdinzaleagora gerturatzeko betebeharrak eraikitzailea ere, emakumeen eskubideak bermatuta, askatasunez.

Dagoeneko azaldu dut kazetaritza feminista kazetari feministek egiten dutela eta ez, ordea, emakumezko kazetariak. Horregatik, Kate Mannek (2020) matxismoak nori egiten dion mesede seinalatu du, gizonen bederatzi pribilegioak zerrendatzeko. Pribilegioak zapalkuntzarik jasaten ez dutenak dituzten abantaila guztiak dira. Pribilegio esaten zaio, gizonen abantaila horiek emakumeak kaltetzen dituztelako eta emakumeak zapaltzeaz baliatzen direlako. Horregatik, abantaila erabat bidegabeak dira, emakumeenganako zapalkuntza-sistema gainditzea ekiditen dutenak. Ondorioz, pribilegiatuek ezin dituzte pribilegioak alboratu; eta zapalduak, gutxiago, jakina.

Gizonen pribilegioak, esan bezala, emakumeen zapalkuntzatik lortzen dituzte: gizon guztiek emakume guztien zapalkuntzatik. Gizarte-antolamendua gizon-emakumeen arteko bereizketan oinarritzen da, gizon guztiei ezaugarri batzuk esleituz eta emakume guztiei, beste ezaugarri batzuk, guztiz ezberdinak, baina osagarriak. Horregatik, derrigorrezko heterosexualitatearen kontzeptuak praktika heterosexualak gainditzen ditu eta gizarte-antolamenduari erreferentzia egiten dio. Heterosexualitatea ez da norbanakoen hautua, patriarkatuaren agindua baizik. Heterosexualitateak zehazten du zelakoak diren emakumeak eta zelakoak gizonak, elkarren osagarriak izateko.

Derrigorrezko heterosexualitateak, gainera, ez ditu lesbianak, emakume bisexualak eta trans emakumeak kontuan hartzen. Heterosexualitate-presuntzioak heteroaraua natural bihurtzen du, denok heterosexualtzat hartuz. Lesbianak direla aldarrikatu dutenen edo lesbianatzat hartu dituztenen bizimodua zailagoa izango da, emakume heterosexualekin alderatuta eta gizon homosexualekin alderatuta ere bai. Pribilegioak, baina, zapalkuntzan oinarritzen dira. Hortaz, lesbianen existentziak ez die emakume heterosexualei talde-abantailarik emango. Hori bai, LGTB+ (LGTBI legezko izendapenaz harago adierazteko erabiliko dudan akronimoa) moduan bizitzeak pertsonen gutxiespena dakar. Aldiz, heteroarauaren barruan daudenei *heterosexualitate-baimena* ematen zaie, pribilegioa ez dena, baina gutxiespenik ez dakarren ezaugarria berresteko balio duena. Heterosexualitateak zenbat eta gertuago, orduan eta zailtasun gutxiago aurkitzen dituzte LGTB+ direnek. Bide horri homonormatibitate esaten zaio (Pérez-Pons, 2023). Horrenbestez, LGTB+ gizonak gizonen pribilegioak dauzkate, baina gutxiespen soziala ere bai, baimen heterosexualik ez daukatelako.

Ondorioz, emakumeak askotarikoak gara. Feminismoak askatasunean egin eta askatasunerantz eraman behar gaitu, denontzako askatasun-eremuak irabaziz. Kazetaritza feministak emakume horiek guztiak askatzea du helburu. Horregatik, praktika onen zerrenda itxia baino, kazetaritza feministak eredu irekia behar du, etengabe sortzen diren erresistentzia matxisten mekanismo berriei aurre egiteko.

Emakumeen zapalkuntzatik gizonak lortzen dituzten pribilegioak (talde-abantaila sozial bidegabeak) ezabatzea helburu duen kazetaritza da kazetaritza feminista. Horrek esan gura du LGTB+ gizonen ere emakumeen zapalkuntzak onurak dakarzikela eta pribilegio horiek desagerraraztea bidezkoa dela.

Mannek (2020) gizonen bederatzi pribilegio zerrendatu ditu, gizontzat hartzen diren guztiek dituztenak. Emakumeen menderakuntzatik eratortzen dira eta emakumeoi kalte handiagoa egiten digu oraindik, gure aurkako zapalkuntza betikitzen dutelako. Azter dezagun gizonen bederatzi pribilegioen isla mediatikoa, horien irismenaz jabetzeko eta aurre egiteko estrategiak garatzeko.

5.2. Gizonen pribilegioak

5.2.1. Pribilegiorako eskubidea

Gizonek emakumeen zapalkuntzatik lortzen duten lehenengo onura *pribilegiorako eskubidea* bera da. Gizonek pribilegiorako eskubidea daukatela (eta emakumeek, ez) islatzen da gizartearen eremu publikoetan eta, beraz, hedabideetan, emakumeak ezkutatu eta desagerrarazten gaituztenean. Horretarako, hedabideak hizkuntzaz baliatzen dira. Euskaraz ez dago generorik, baina, generoa daukaten berben kasuan, gizonezkoena aukeratzen da: adibidez, “anai-arrebak” esamolde matxista nagusitzen da, bizkaierazko “neba-arrebak” berdinzalearen gainetik.

Era berean, androzentrismoa (arloan guztietan gizonak irudikatzea) borrokatzeko, argazkiak laguntzen du gizonen iruditeriarekin apurtzen.

1. Irudia . Androzentrismoa argazkiarekin borrokatzea

Atsedetik gabeko uda izango dute Adoseko pilotariek

Hiru txapelketa antolatu dituzte: San Fermin torneo, Plazaz Plaza eta Uda
Caixabank Mastersa. Horiek antolatzeko egin behar izaten duten lana nabarmendu du
Maite Ruiz de Larramendik.



Maite Ruiz de Larramendi labrit pilotalekuan. IÑIGO URIZ / FOKU

Iturria: Berria.eus (2025/06/21).

Beste kasu batzuetan, androzentrismoa ez bultzatzeko, “emakume” berba gehitzea baino ez dago. Horregatik, EHUko itzultzaile Ana Morales borrokatu egin zen Bilbon emakume galletagileei eskainitako kaleak ez zezan haien sexua ezkutatu “Galletagileen kalea” esamoldearen atzean, “Emakumeei omenaldia emakumerik gabe” artikuluan jasota geratu zen bezala (Berria.eus, 2025/7/9).

“Emakume” berba, baina, tentuz erabili behar da. Gallegok (2002) deskribatu zuen *betiko aitzindariaren sindromea*: emakume batek postu bat lortzen duen bakoitzean berdintasunean aurrerapen izugarria gertatu dela ematen du. Emakume batek egitura matxista apurtu izana lorpena izanik, haren izen-abizenak aipatzean meritua berari aintzatetsiko litzaioke. Hala ere, anonimizatutako emakumeen albisteek saturazioa eragiten dute hartzaileengan, eta zapalkuntzaren aurrean anestesiatzen dituzte:

- “Emakume bat lehen aldiz Lantzeko inauterietako Ziripot pertsonaia izan da.” (Euskalerrairratia.eus, 2025/03/06).
- “Emakume bat, lehen aldiz Italiako ezkerreko alderdi nagusiaren buru.” (Naiz.eus, 2023/02/27).
- “Artemis misioak lehen aldiz bidaliko du emakume bat Ilargira, astrora egindako azken bidaiatik 50 urtera.” (Eitb.eus, 2022/08/28).
- “Eremu tribaletako emakume bat izango da lehen aldiz Indiako presidente” (Berria.eus, 2022/07/22).
- “Emakume bat dantzarien kapitain, estreinakoz.” (Ataria.eus, 2022/06/24).
- “Tunisiako lehen ministroa emakume bat izango da aurrenekoz” (Berria.eus, 2021/09/30).

Emakume horiek izen-abizenekin identifikatzen ditugunean, lorpenaren berri ematen dugu, albistegaitasunari jarraikiz.

5.2.2. Miresmenerako pribilegioa

Emakumeen zapalkuntza betikotzen duen gizonen bigarren pribilegioa *miresmenerako pribilegioa* da. Lehenago azaldu dugun bezala, Espainiako hedabideetan gizonezkoen gainordezkaritza albisteen % 74ra iristen da eta, Frantzia, % 69,2ra; gainera, hori ez dator bat interes informatiboarekin. Izan ere, emakumeek interes publiko handiena dutenean ere, gizonak dira informazio-azalpenaren ordezkariak agertzen direnak.

Era berean, gizonenganako miresmena emakumeen presentzia bikarioan islatzen da, hau da, gizon batekiko identifikazioan (Gallego, 2002). Emakumeen presentzia bikario hori, izenik gabe, haien izaera azpimarratzen saiatzen da. Adibidez: albistegia izan arren, hedabideek ez dute emakumearen izena ematen eta gizonaren emazte moduan aurkezten dute:


- “Real-PSG partidaren atarikoan zauritutako emakumearen senarrak gertatutakoari buruzko “iluntasuna” salatu du. Joseba Novoak [...] ukatu egin du bere emaztea botilak eta harriak jaurtitzen ari ziren leku batean zegoela.” (Eitb.eus, 2024/05/22).

Bestalde, “emakume” terminoa erabiltzen da, azpikategoria osatzen dugula adierazteko, gizona kategoria unibertsaltzat hartzen dutelako. Aldi berean bi kategoriak daudenean, orduantxe bakarrik mugatzen da gizonen unibertsaltasuna gizon kategoriara. Jokabide zuzena da, “emakumezkoen” izenorde baztertzaila alboratu eta kategoria guztiak denontzat direla zabaltzea. Horretarako, jokalarien izena esatean gizonengandik ezberdin dezake eta argazkiak ere bai:

- “Sopelako Udalak Oihane Hernandez futbolari sopeloztarra omendu du Munduko Futbol Txapelketa irabazteagatik” (Hiruka.eus, 2023/08/24).

5.2.3. Jakintzarako pribilegioa

Hirugarrenik, *jakintzarako pribilegioak* jakituria bildu eta informazio-iturria nor den zehazten du. Albiste-iturria izateak autoritatea ematen dio informatzaileari, hedabideek albistea haren ezagutzan oinarritzen dutelako. Hedabideetan, baina, gizonezkoen albiste-iturrien gainordezkaritza dago. Parekidetasuna agertzea hedabideen ekimena da:



Iturria: Ttap (2025/07/05).

5.2.4. Aginterako pribilegioa

Laugarrenik, *agintearen pribilegioak* azaltzen du aginte-karguetan dauden gizonak naturalizat hartzen direla, eta emakumeak, berriz, anbizio handiko pertsonatzat. Modu horretan, Espainiako politikan, gizonek emakumeek baino arreta mediatiko handiagoa jasotzen dute: telebistako albisteen % 40,7k gizonezko politikari bakarra aurkezten dute protagonista gisa, eta % 7,3k bakarrik erakusten du emakumezko politikari bat (Matud et al., 2021). Gainera, aurkezten duten irudi estereotipatuak gehienetan diskurtso politikotik aldendu eta kontu pribatuetara zokoratzen ditu. Ondorioz, hedabideek gizonen eta emakumeen arteko arrakala politikoan sakontzen dute.

5.2.5. Arreta medikorako pribilegioa

Bosgarren pribilegioak, *arreta medikorako pribilegioak*, erakusten du emakumeak gizonak baino okerrago diagnostikatzen direla 700 gaixotasunetan, osteoporosian izan ezik, non gainpreskripzioa ematen den. Paradigmatikoa da COVIDaren aurkako txertoak emakumeengan duen eragina aztertu gabe onartu izana, ez baitzen 2022ra arte klinikoki egiaztatu.

Genero-ondoezak esamoldearekin azaltzen du Maitena Monroyk (2023: 93-97) emakume-sozializazioagatik gure osasunak okerrera egiten duela. Monroyk azpimarratzen du emakumeak kontrolatzeko izu sexualpean bizi izanaren ondorioz, etengabea alertan bizi garenez, emakumeek

kortisola lar altu dugula. Hala ere, hedabideek emakumeak modu pasiboan islatzen gaituzte, zapalkuntzak dakarkigun zamatik deskontestualizatuta:

3. Irudia. Emakumeen osasun mentalari buruzko isla mediatikoa

Gaixorik daudelako baztertutakoak

Oraindik ere estigma sortzen du adikzioaren bat izateak. Zenbait adituk estigmatizazioa zerk eragiten duen eta adikzioa duenarengan zer ondorio dituen aztertu dute, Etorkintza fundazioaren 40. urteurrenaren harira.



Andre bat etxean alkohola edaten, artxiboko irudi batean. BIZKAIKO HITZA

Iturria: Berria.eus (2025/03/31).

5.2.6. Lan erreproduktiboetarako pribilegioa

Seigarren pribilegioa *lan erreproduktiboetarako pribilegioa* da, gizonek egin ezean, haien emakumezko kideen kontura (bikotekidea, ama, izekoa, alaba etab.) gauzatzen delako. Kazetaritza feminista generorol eta -estereotipoak eraldatzen ahalegintzen da, adibidez, zaintza-lanetan gizonak islatuz. Aldiz, emakumeak estereotipo sexistetan azaltzeak horiek betikotzen ditu, naturalizatzen dituelako:

4. Irudia. Emakumeak zaintza-lanetan betikotzea

Jaurlaritzak lau urtera luzatu du seme-alabengatiko 200 euroko diru laguntza

Gaur egun, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako familiek 200 euro jasotzen dituzte hileroko seme-alabek 3 urte bete arte. 2023an indarrean sartu zen laguntza hori beste urtebete luzatu nahi du Jaurlaritzak. Aurten aplikatuko dela iragarri du.



Ume bat artxiboko irudi batean. JON URBE / FOKU

Iturria: Berria.eus (2025/03/11).

5.2.7. Emakumeen eta neskatilen gorputza kontrolatzeko pribilegioa

Zazpigarrenik, gizonek *emakumeen eta neskatilen gorputza kontrolatzeko pribilegioa* daukatela ikusarazten du emakumeen gorputzaren sexualizazioak, adostasunaren pribilegioari ere badagokiona, emakumeekiko sexuaren derrigortasuna bere gain hartzen duena. Alde batetik, hedabideen elikadura-diskurtsoan emakumeen gehiegizko aurkezpena dago. Bestetik, emakume anonimoak edozein albiste irudikatzeko erabiltzen dituzte:

5. Irudia. Emakume beraren argazkia edozein albiste ilustratzeko

Maskara erabiltzea derrigorrezkoa izango da intentsitate txikiko kiroletan, Nafarroan

Neurria gutxienez urriaren 26ra arte egongo da indarrean. Egoera epidemiologikoaren arabera, ordea, luzatu ahal izango da.

2020/10/14 - 09:03



Eusko Jaurlaritzak jarduera fisikoa sustatu eta herritarren ongizate integrala bultzatzeko plana aurkeztu du

2025-2030 Mugiment Ekintza Plana Eusko Legebiltzarrean aurkeztuko dute hurrengo egunetan, talde politikoen ekarpenak jaso eta horien bidez plana indartzeko.

2025/04/08 - 14:31



Iturria: EITB Orain.

5.2.8. Emakumeekin sexuan jarduteko pribilegioa

Emakumeen zapalkuntzatik gizon guztiek lortzen duten zortzigarren pribilegioa *emakumeekin sexuan jarduteko pribilegioa* da, sexu-indarkeriaren garrantzia arintzen duena. Hasteko, hedabideek ez dituzte ezberdintzen sexua eta sexu-indarkeria, biei "sexu-harreman" esaten baitiete. Horrela, emakumeen aurkako indarkeria erotizatzen dute, erasoen lekuan plazerereko terminologia erakusten dutelako.

Emakumeen aurkako sexu-indarkeriari garrantzia kentzeko beste modu bat da salatzaileen sinesgarritasuna ustezkokeriekin zalantzan ipintzea da, lehenago ikusi dugun moduan.

Era berean, emakumeen aurkako sexu-indarkeriaren berri ematean, hedabideek ez dituzte mugimendu feministaren aldarriak kontuan edukitzen. Hego Euskal Herriko mugimendu feminista 1980ko hamarkadan borrokatu zen legedia frankista aldatzeko. Hark finkatzen zuen emakumeen aurkako sexu-indarkeria euren ohorearen aurkako erasoak zirela. Feministek, ordea, emakumeen sexu-askatasunaren aurkako erasotzat jotzen zuten. Espainiako 1995eko Zigor Kodeak hala jaso zuen eta, ordutik, Espainian ez dago bortxaketa-deliturik, sexu-erasoa baizik. Hala ere, hedabideek feministen aldarriari bizkarra eman diete eta, legea bete barik ere, izendapen frankista erabiltzen jarraitzen dute. Frantziako legeak, ordea, bortxaketa eta erasoak ezberdintzen ditu oraindik. Horregatik, zilegi da Ipar Euskal Herriko hedabideek legearen izendapena erabiltzea.

Kazetaritza feministak, baina, mugimendu feministaren aldarriak jasotzen ditu, eta sexu-erasotzat hartzen du emakumeen aurkako sexu-indarkeria, erasoei buruzko albisteek ere emakume moduan sozializatzen gaituztelako.

5.2.9. Onartzeko pribilegioa

Gizon guztien azken pribilegioa *onartzeko pribilegioa* da, gizonak emakumeekin sexuan jarduteko agindua berresten duena. Hedabideek emakumeen irudia sexualizatzen dute eta, horretarako, haien sinesgarritasuna higatzen duten praktikak dituzte, hala nola ustezkokeriak.

Ondorioz, gizonak, nahi ala ez, emakumeenganako diskriminaziotik lortzen dituzten aztertutako bederatzi pribilegio horiek ezabatzeko asmoa duen kazetaritzak praxi feminista beteko du. Kritikaren erantzukizunarekin, eta, gizarte berdinzalea helburu, betebeharrak eraikitzailearekin konprometitzen den kazetaritzak gizarte bidezkoago bat lortzen lagunduko du; eta, aldi berean, emakumeak, aske.

6. Kazetaritza feminista interseksionala

Feminismoak berdintasuna du aldarri, ezberdintasuna azalduz (Reverter, 2022: 34). Emakumeen aurkako zapalkuntza borrokatzen du, hainbat motatako emakumeak aldarrikatuz. Interseksionalitateak zapalkuntzak kontuan edukitzeko agintzen du, bestela gizarte-atal horren aurkako zapalkuntzan lagunduko genuke. Interseksionalitateak erakusten du zapalkuntza eta bereizkeria menderakuntza-sistema osoa elikatzen duten atalak direla.

Zapalkuntza jaso duten taldeek historikoki hezkuntzara eta indarkeriarako sarbidea trabatuta eduki dute. Hau da, menderakuntza-egoera ez zezaten uler eta ez zitezen matxina. bell hooks-en (2015 [1984]: 36-37) arabera, zapalkuntzak hiru dira: sexu/generoa, arraza eta klasea. Hurrenkera hori zapalkuntzez jabetzeko prozesuarekin bat dator: matxismoa etxean ikusten dugu, arrazakeria kalean ezagutzen dugu eta klasismoa herrian pairatzen dugu.

Hiru zapalkuntza horiek pribilegioak ematen dizkiete talde zapaltzailea osatzen duten kide guztiei, nahi edo nahi ez, beren burua zapaltzaileztat hartu edo ez. Pribilegioak talde-onurak dira, zapalkuntzatik lortzen dituzten abantaila bidegabeak. Horregatik, ezin daitezke bakarka borrokatu, norberak ezin dituelako dauzkan pribilegioak ezabatu.

6.1. Zapalkuntzak eta bereizkeriak, menderakuntzaren oinarriak

Pribilegioak ez dira eskubideak. Zapalkuntzak, jakina, eskubideen ukapena dakar eta, eskubideak aintzatetsita ere, haien urraketa argia da. Pribilegioak zapalduakoei kalte egiten dieten abantailak dira, haien zapalkuntza areagotzen dutelako. Zapaltzaileen eskubideak, baina, ez dira pribilegioak. Eskubideak denontzat zabaldukoan ere, zapaltzaileek pribilegioak edukitzen jarraitzen dute. Eskubideak, ordea, ez zaizkie zapalduen bermatzen. Horrela, gizonek kalean beldurrik ez sentitzea ez da pribilegioa, emakumeen osotasun fisiko eta psikikorako eskubidearen bermerik eza baizik. Horrela formulatuta, gainera, estatuaren erantzukizuna azpimarratzen du. Era berean, LGTBI+ kideek kalean maitasun-keinuak egitean jasotzen duten indarkeriak haien sexu-eskubideen bermerik eza erakusten du. Berrito, estatuaren erantzukizuna. Trans pertsonen bereizitako komunera joateko beldurra ez da zis pertsonen pribilegioa, trans pertsonen osotasun fisiko eta psikikorako eskubidearen bermerik eza baizik. Jakina, horren erantzulea Estatua da. Funtsezkoa da gure gizartean talde jakin batzuek dauzkaten eskubideak betetzen ez direla ikusaraztea. Eta horrela, existitzen ez diren pribilegioetara jo beharrean, denoi dagokigu justizia soziala aldarrikatzea.

Menderakuntza-sistema zapalkuntza eta bereizkerietan oinarritzen da. Zapalkuntzak hiru dira (sexu/generoa, arraza eta klasea). Bereizkeriak, ordea, ugari. Bereizkeria esaten zaio gorputzaren arauan oinarritutako diskriminazioari. Ingelesezt, *lookism* izena hartu du. Horren arabera, gorputzaren normatibitateak pertsonen balio soziala zehazten du, gure gorputzak sailkatuz (Diamond et al., 2017). Bereizkeriek zapalkuntza bakoitza graduatzen dute: modu batean edo bestean eragiten dute, hiru zapalkuntzetako bakoitzean.

Era berean bereizkeriek ondorio materialak dakartzate, diskriminatutako pertsonen bizimodua zailtzen dutelako. Bereizkeria pairatzen ez dutenek, orduan, *baimena* lortzen dute, baina ez dute klase sozialik osatzen, bereizkeriak ez dielako pribilegiorik (hau da, bereizkeriatik eratorritako talde-onura bidegabeak) ematen. Baimenak, beraz, bereizkeriarik ez jasatea ahalbidetzen du.

Bereizkeria horietako batzuk azaltzen dituzten berbak sortu dira, askotariko diskriminazioak identifikatzeko, oraindik itxi bako zerrenda bada ere. Hurrenkera alfabetikoari jarraikiz, lehenik eta behin,

adinkeria pertsona baten benetako edo hautemandako adinean oinarritutako diskriminazioan datza. Adineko pertsonak jatorrago, ahulago eta ergelagotzat hartzen dira, gorputz zahartuak dituztelako, besterik gabe.

Bigarrenik, altuerakeriak (*heightism* izena duenak), altueraren arabera tratamendua dakarren bereizkeriak, autoritatea altuerarekin lotuta dagoela suposatzen du, pertsona altuagoak erakargarriagoak direla zehaztuz. Horrela, gizon baxuagoak autoritaterik gabekotzat jotzen dira. Emakume baxuentzat, berriz, genero-estereotipoak indartu egiten dira beren gorputzaren balorazio sozialean, atseginagoak, gozoagoak eta arrisku gutxiagokoak direlakoan. Gainera, heteronormatibotasunak bikote bateko bikotekide baxuena emakumeak izan behar duela agintzen du.

Hirugarrenik, itsusfobiak itxura fisikoa eta izaera lotu ohi ditu. Ezaugarri fisikoak izaera onargarriaren edo gaitzesgarriaren adierazletzat hartzen dira.

Laugarrenik, kapazitismoak gorputz eta ezaugarri psikologiko normatiboen ideal soziala irudikatzen du. Desgaitasuna duten emakumeek zigor handiagoa jasotzen dute gehiago zigortzen dira, genero-estereotipoak, gizonen aldekoatasunaren legean oinarrituta, desgaitasunarekin bateraezinak direlako.

Eta, bosgarrenik, lodifobiak pisu handiagoa duten pertsonak alfertzat hartzen dituen pentsaera izendatzen du. Langile-klase prekarioenak, hau da, dieta orekatu baterako baliabide ekonomiko eta denbora gutxiago dituztenek ere, zigor handiagoa jasotzen dute obesitateagatik. Modak berak indartzen du Primarken erosketak egitea lotsa-iturritzat hartzen dituen klasismoa, baina arratsaldea luxuzko dendetan pasatzea normalizatzen duena.

Horrela, bereizkeriek hiru zapalkuntza nagusiak indartzen dituzte. Azken horiek norbanako bakoitzaren gorputzean oinarritzen direla kontuan hartuta, bereizkeriak banakako izaera faltsu bat hartzen du, pertsona-talde oso bati aplikatzen zaiola ezkatutaz. Gorputzen normatibitateak baimena ematen die pertsona erakargarriari, baina gorputzek banakakoak izateari uzten diote eta gorputz sozial bihurtzen dira: desberdintasun sozialen gune. Hala ere, erakargarritasunak ez ditu gaingaitzen sexu/generoko zapalkuntza, klase-esplotazioa eta arrazakeria.

Kazetaritza feminista intersektionalak bereizkeriak borroka ditzake, gorputz guztiak, pertsona denak, erakutsiz. Aurreko ataletan azaldutako aldarri bera aplikatzen da hemen: albisteen protagonista izateak (tituluan eta argazkietan) ikusgaitasuna dakar, eta albiste-iturritzat hartzeak, autoritatea. Izan ere, argazkiak ikusgaitasuna ekar dezake edo, ordea, errealitate hori ezkuta dezake:

6. Irudia. Ezgaitasuna, ikusezin

KIROL EGOKITUA

Desgaitasuna dutenentzako pala eta pilota eskola berria abiatuko da larunbatean Bilboko Esperantza frontoian

Ekimen berritzaile honen bultzatzaileek nabarmendu dutenez, udal instalazioaren "komunikazio bikainei eta irisgarritasunari esker", Esperantzako udal frontoia "leku ezin hobea" da eskola hori abian jartzeko.

2025/03/21 - 20:06



Iturria: EitB Orain.

Oyèrónké Oyěwùmí irakasleak nabarmendu du mendebaldeko zibilizazioa ikusmenean oinarritzen dela (2023 [1997]: 82). Horrek azal dezake gurean itxuran oinarritutako bereizkeriak izatea. Gorputzen normatibitatea ez betetzeak bizimodua zailtzen du, baina bereizkeriak ez die pertsona erakargarrii onurarik ematen. *Gorputz normatibodunek ez dute pribilegiarik lortzen bereizkeriatik. Bereizkeriek baimenak ematen dituzte: gorputz normatiboetako bizimodu normatiboa esleitzen diete, hau da, ez diete bizimodua zailtzen, baina bereizkeria bakoitzaren kontrol-zerrenda edo checklist-a gainditu behar dute. Horregatik, bereizkeriek baimenak ematen dituzte: heterosexualitate-baimena, zis-baimena (eta ez zis-pribilegioa), heldutasun-baimena, gaztetasun-baimena, altuera-baimena, edertasun-baimena (pretty privilege-ren orde), gaitasun-baimena, argaltasun-baimena... Baimena "zergatik" galderarik ez dakarren ezaugarri bat da: inork ez du galdetzen zergatik den norbait heterossexual, zis, heldu, gazte, altu, eder, gai, argal... Baimenik ezak, ordea, gutxiespena dakar: gorputz horren balio soziala gutxituz doa. Hala ere, baimen guztiak dituen gorputz normatiboak ere ezin dezake oinarritzko hiru zapalkuntzetako bat ere gainditu (sexu/generoa, arraza eta klasea). Interseksionalitatea, beraz, arazoa azaltzeko modua da, baina ez da menderakuntza-sistema amaitzeko giltzarria.*

Zapaltzaileei gure aldarriak isilik entzutea agintzea alferrik da: ezin dute haien egoera aldatu. Isiltzeko eskatzen dugunean botere hierarkikoa erreproduzitzen ari gara, sistema hierarkikoa desagerrarazi beharrean. Gainera, interseksionalitateak azaltzen du, menderakuntza bateko zapalduak izan arren, beste menderakuntza bateko zapaltzaileak izan gaitezkeela. Izan ere, zapaldua izateak ez dakar zapalkuntza horretaz jabetzea. Zapalkuntzari aurre egiteak bakarrik ematen digu kontzientzia politikoa. Zapalkuntza ez areagotzeko, pribilegioen oinarri diren estereotipoak borrokatu behar ditugu. Hala ere, menderakuntza ezabatzeko, zapaltzaileak ere bere barruan hartuko dituen mugimendu soziala behar dugu. Borroka politikoaren helburua ez da zapalkuntza bera, menderakuntza-moduak baino: pribilegioak. Jarraian aztertuko den moduan, gizonen pribilegioekin batera, pribilegio zuria eta klase-pribilegioak ere borrokatzen ditu kazetaritza feministak.

6.2. Pribilegio zuria

Arrazismoak gizartea arautzen du. Arrazakeriak arrazak ezberdintzen ditu, haien hierarkia finkatzeko. *Pribilegio zuria* esaten zaio arrazializatua ez izateagatik arrazismoak, nahi edo nahi ez, ekartzen digun abantaila bidegabeari.

Zuritasuna arrazializatu gabekoen ezaugarria da; eta arrazakeriaren biktima izatea, ez-zurien bereizgarria. Baina ez-zuriekiko arrazakeria ez da beti berdina. Horregatik, arrazismoak (pluralean) esaten badugu, arrazakeria bakoitzak bere historia eta ondorioak dauzkala azpimarratzen dugu (Stanley, 2024: 63). Horrexek azaltzen du aktibista antiarrazista bat beste arrazakeria batean arrazista izan daitekeela.

Lehenengo eta behin, Euskal Herrian arrazakeria historikoa ijitofobia da. Ijito herriak 600 urte baino gehiago eman ditu Euskal Herrian eta, oraindik, *ghettoetan* bizi dira.

Bigarrenik, Euskal Herriak parte hartu duen kolonizazio-prozesuen ondorioetan erantzun behar du. Kolonialismoa metropoli europarraren menderakuntza politiko-administratiboa da, eta herrialde horietako baliabideen kontrola zuen helburu. Kolonizatutako herrialdeek behin independentzia politikoa lortutakoan, baina, ez zen menderakuntza amaitu. Hortaz, kolonitateak menderatu-izaerari erreferentzia egiten dio, metropolia izandakoaren nagusitasuna onartzen jarraitzen duelako. Horregatik, deskolonitatea menderatuen pentsaera gainditzeko mugimendua da. Ildo beretik, ingelesezko adieraren kopia hutsa den 'dekoloniala' berba baztertzen du, AEBn nagusitasunaren erakusle delako (Espinosa Miñoso, 2016).

Kolonitateak azaltzen du gure hedabideen nazioarte-saila: kolonia izandako herrialdeetako

buruzagien hauteskunderen berri ematen dute. Gure nazioarteko agenda mediatikoak izandako inperioaren berri ematen digu. Adibidez, egun bereko nazioarteko albisteei erreparatzen badiegu (2025/08/02), nazioarteko lehen sei albisteen herena dira Espainiako koloniak izandako herrialdeen albisteak, hain zuzen, Hego Euskal Herriko Berria.eus-en, eta Frantziakoak izandakoei buruzkoak, Iparraldeko Kazeta.eus-en.

Era berean, kolonitateak azaltzen du metropolia izandako herrialdearen inguruko albisteei ere menderatutako herrialdeetako hedabideetan leku handia hartzea, adibidez, 2025eko Espainiako itzalaldia Hego Amerikako egunkarietako lehen orrian jasotzea.

7. Irudia. Argentinako Clarín, Kolonbiako El Espectador eta Mexikoko El Universal egunkarietako argazki nagusia, Espainiako itzalaldiaz



Iturria: Kiosko.net (2025/04/29).

Era berean, gure hedabideek mendekotasun-izaera hori erakusten dute AEBren berri ematean, haien albisteak gure egiten ditugunean.

Kolonialismo ezezagunagoa egiten zaigu Rifekoa (Maroko) eta Afrikakoa, Euskal Herriak Espainiarekin eta Frantziarekin parte hartu bazuen ere (El Aaddam, 2024).

Herrialde afrikarren kasuan, Euskal Herriaren eta AEBren historia erabat ezberdinak dira. Estereotipo horiek komunitateko kideen kopuruari erantzuten diola ematen du, Euskal Herriko arrazakeriak lege-hausletzat ijitoak eta arabiarrek hartzen dituelako, eta AEBn, berriz, beltzak señalatzen dituzte.

Horrenbestez, talde horien guztien aldarri antiarrazistak komunak izaten dira. Hedabideei dagokienez, hiru dira. Lehenengo eta behin, pertsona arrazializatuak albisteen protagonista izatea, haien aniztasuna azaltzeko, informazio positiboetan haien arraza aipatuz; eta aipatu barik, arrazak albistea zehazten ez badu, lege-hausteei buruzko albisteen kasuan, arrazak ez duelako lege-haustea bideratzen.

Bigarrenik, informazio-iturria izatea eskatzen dute, lehenago ikusi dugunez, autoritatea aitortzen duelako. Gehienetan, baina, jasaten duten zapalkuntza salatu behar izaten dute oraindik.

Azkenik, albisteen testuingurua azaltzea beharrezkoa dela diote. Kasu horretan, sexu/genero- eta klase-zapalkuntzez ari dira. Alde batetik, feminista antirrazistek salatu dute pribilegio zuriaren "salbatzaile zuria" figura (Zakaria, 2023). Kontzeptu horren bitartez, arrazializatuak (ijitoak, hegoamerikarrak, arabiarrek eta musulmanak, afrikarrak eta asiarrak), den-denak, gu baino matxistagoak direla aditzera

ematen da. Horrela, arrazakeria feminismoaz baliatzen da, zapalkuntzan sakontzeko. Orduan, komunitate horien aurkako erasoak begi onez ikusten ditugu, emakume horiek laguntzeko ezinbesteko ekintza delakoan.

Pribilegio zuria borrokatzen duten feminismo arrazializatuak eta arraza kontuan hartzen duten feminismoak AEBko feminismo beltzaren hiru ezaugarri partekatzen dituzte. Hasteko, beren komunitateko gizonen jarrera matxistak kritikatzeko dituzte eta ez dute beren arrazako gizonen aurkako feminismoaren erabilerarik onartzen. Bigarrenik, arrazakeriaren aurkako borrokan zurien premia daukatela azpimarratzen dute, kidetasunean. Azkenik, klase-pribilegioa kontuan edukitzera deitzen dute, zapalkuntza horrek haiei eragiten dielako modu neurrigabea.

Zuriak ez diren emakumeak ere pobreagoak dira haiek baino proportzio handiagoan (ibidem: 217-218). Horregatik, geroago azalduko den moduan, ikuspegi intersektionalak klase-zapalkuntza ere jaso behar du:

8. Irudia. Txirotasunak arrazaren ardatza erakusten du

© BASAURI

Kareaga Goikoako suteko familiek “irtenbide etengabea” behar dutela aldarrikatu dute Ijito-erakundeek

Euskadiko Ijitoen erakundeek 2.640 euroko laguntza handitzea eta etxebizitza publiko babestuetan lehentasunezko sarbidea izatea eskatu dute



Orain 6 hilabete | 2025/03/11
Maider Ibañez Espinosa



Gaur goizean agerraldia egin dute Euskadiko Ijitoen Erakundeetako ordezkariak // Utzitakoa

Iturria: Geuria.eus (2025/03/11).

Horregatik, kazetaritza feminista intersektionalak pribilegio zuria bera borrokatu behar du, emakume zuriak beren egoera soziala gizon zurienarekin parekatzen dutelako, eta, hala, emakume ez-zurien zapalkuntza handitzen dutelako (Ibidem: 98). Horrelakoetan, hedabideek pertsona arrazializatuak “bestetzat” hartu ohi dituzte:

INDARKERIA MATXISTA

Elkarbanatu Gorde

Emakumeen salerosketaren aurkako lege proiektua onartu du Espainiako Gobernuak, biktimei eskubideak emateko

Aurreko legealdian aurrera egiterik ezin ez zuen egitasmoa da honakoa. Biktimak jarriko dituzte erdigunean: ez dituzte Estatutik kanporatuko, bizitoki eta lanerako agiriak emango dizkiete eta laguntzak jasoko dituzte, salaketa aurkeztu barik ere.



Emakumeen salerosketaren biktime bat. Argazkia: NBE (OIM Puerto España)

Iturria: Orain Eitb (2024/03/08).

Gainera, desberdintasun sozialak denbora-kontua direla pentsatzeko arriskua dago. Beste herrialde batzuk gu orain urte batzuk egon ginen egoeran bizi direla zabaltzen da, haien garapen falta izango balitz bezala arrazoia. Aldiz, zaintza-kate globalak erakutsi du gurean zaintzera datozenek beren gertukoen zaintzari uko egin behar izaten diotela (seme-alaben zaintzari, batez ere).

Euskal Herriak adibide historikoa du zaintzari lotuta: añaak edo inudeak, haien seme-alabak eduki berritan, behar zuten esnea dirudun familietako ume jaioberriei ematera eramaten zituzten emakumeak. Horrela, ume dirudunen amek ez zituzten beren jaioberriak edoskitzen, atsedena hartzeko edo euren gizonek ume gehiago eduki gura zituztelako, edoskitzeak ernalkuntza oztoka dezake-eta. Edoskitze-aroa amaituta, añaak euren jaioterrira bueltatzen ziren. Egungo zaintzaile migratuekin parekatzeak zabaltzen du, baina, aurrerapenak egoera bidegabe horri amaiera emango diola baieztatzeko itxaropen faltsua.

Kazetaritza feministarentzako erronka handienetako bat erlijioaren isla mediatikoa da. Arrazismoa pairatzen duten hainbat arrazatan erlijioak pisu handia dauka: ijito herrian, Hego Amerikan, herrialde arabiarretan eta Afrikan. Aldi berean, feminismoa laikoa da. Euskal Herrian, gainera, aginte erlijiosoa antifeminista da. Emakume musulmanak ikusgai egiteko, zapiarekin agertu ala ez eztabaidatzen da, hori erlijio baten ikurra delako. Feminismoak ohitura erlijiosoa babestu edo arbuiatu behar dituen jakiteko, herrialde horretako feministen aldarriak eduki behar ditugu kontuan.

Izan ere, salbatzaile zuriaren figurak azaltzen du munduko emakumeak askatzeko gure gurariak eman ohi diela gizon zuriei euren agintea zabaltzeko babes. Emakume zuriok gure pribilegioa erabili behar dugu beste emakumeei ahotsa emateko (Zakaria, 2023: 172-179).

Iranen, gainera, feministek haien hijabak erre zituzten. Kontuan eduki behar da feministek ez zutela AEBn inoiz bularretakorik erre; horra hor "desinformazio aktiboaren paradigma" bat (Gorosarri, 2021). Vietnamgo gerraren aurkako protestetan AEBko bandera erretzen zela adierazteko txantxa izan zen, feministen protestetan istilurik ekar zezakeen auzi politikorik ez zegoela adierazteko.

Emakumeek, emakume izateagatik, feminismorik egiten ez duten bezala eta emakume kazetariak berez kazetaritza feminista egiten ez duten antzera, emakume erlijiosoek ez dute feminismorik egiten. Hori bai, emakume guztiak irudikatzeko, Euskal Herrian bizi garen emakumeok ordezkaturik sentitu behar dugu, erlijiosoek ere bai, feministak izan edo ez.

Dagoeneko, hainbat arrazatako pertsonak osatzen dute euskal gizartea. Euskaldun batzuk arrazializatuak dira. Gizartea bere horretan irudikatzeko hedabideen eginkizuna are garrantzitsuagoa da, hedabideek ohikotasunez euskal gizarte askotarikoa erakutsiz gero ikusi ere egingo dugulako. Izan ere, erakutsi dugu euskalduntasunak ez gaituela beste egoerenganako sentiberago egiten, hala nola arrazakeriaren aurrean. Eta horretarako gako bat ere bada euskaldun arrazializatuak erakustea.

Arrazakeria arraza batera muga daitekeen moduan, antirrazismoak ere inperialismoa babesteko arriskua dauka. Alde batetik, sinesmen izpiritualerako askatasunak ezin du erlijioa babestu, erlijio guztiak inperialistak direlako: judutarren estatua sortzeko prozesua, hala nola Gazako herriaren aurkako genozidioa (2023tik aurrera); kristauen sorgin-ehiza eta hainbat kontinentetako kristautzea; eta musulmanak arabiarantz Afrikako iparraldean, besteak beste (El Aaddam, 2024: 24-32).

Aldi berean, baliteke herrialde inperialistetako populazioa gutxiengoa izatea beste herrialde batzuetan. Beren hizkuntzari eta kulturari eusten badiete, AEBko txinatar jatorrikoek eta Errumaniako aleman jatorrikoek ez dute beteko Txinako edo Alemaniako zabalkundearen helbururik. Baina Taiwanen txinera edo Polonian alemana zabaltzeak, Euskal Herrian gaztelania eta frantsesa sustatzearen antzera, bertoko hizkuntza eta kulturari (geurean, euskalduntasunari) kalte egiteko herrialde inperialisten helburuekin bat egiten du.

Euskal Herrian, gainera, prekarizatuenak migratzaileak dira. Haien egunerokotasunean erdara (frantsesa eta gaztelania) behar dute. Ez dute berez euskalduntasuna arbuizatu. Hala ere, aginte inperialistek migratzaileak erabil ditzakete Euskal Herrian akulturazioa sustatzeko, erdararen nagusitasuna areagotuz. Horretara zuzenduta daude, Jose M. Aznarrek, Espainiako presidente izan zenak, bere sare sozialetan egindako adierazpenak:

“Espainiak legezko egoeran dauden etorkinak behar ditu. Bereziki, Hispanoamerikako gure herrialde anaia. Kultura bera dute, sustrai berak, tradizio berak, historia bera, eta aktibo handia dira gure herriarentzat.” (2025/02/05) [nire itzulpena].

Horrela ulertzen da, halaber, Espainiako Alderdi Popularrak sustatu gura duen puntuko immigrazio-sistema, “kultura” sarituko duena.

Ikuspegi inperialistak gure kultur erreferenteetan eragiten du zuzen-zuzenean, ospakizunetan ere. Adibidez, Gabonak ospakizun erlijiosoak dira, sozialki eta ekonomikoki oso errotuta daudenak. Umeei opariak ekartzen dizkien Hiru Errege Magoen figura Espainian bakarrik dago, eta ez beste herrialde katolikoetan (ez Italian, ezta Hego Amerikan ere). Euskal Herriko berezitasuna da Olentzero ikazkinaren figurari eutsi izana. Aldi berean, emakume baten presentzia ere gehitu da, 1994an Donostiako Bagera euskara-elkarteak “Orra Mari Domingi” herri-kantatik ekarri. Azken urteotan, gainera, kanta horri ere erreferentzia erlijiosoa kendu berri diote. Hala ere, Mari Domingi ezin da Olentzeroren emaztea izan, bere figurak bikote heterosexualaren estereotipo patriarkalak erreproduzitzera eraman gaituelako: gazteagoa izaten da, baxuagoa, argalagoa, eta isilagoa.

Ondorioz, euskal hedabideek Olentzerori eta Mari Domingiri edo Errege Magoei egiten dieten tarteak herri-ikuspegia islatzen du. Alde batetik, *Berriak* eta *Garak* ez diete errege kristauei tarterik egiten. Bestetik, *Diario de Navarrak* Tuterako Papá Noel figura ez-kristauari leku handiagoa egin zion, Iruñea

iparraldeko Ezkaba menditik datorren Olentzerori tarteak kenduz (2024/12/24). Aldi berean, Bilboko Errege Mago batek baino ez zekien euskaraz, ume euskaldunekin hitz egiteko, EAEko hezkuntza hizkuntza horretan ardazten bada ere (Etb1, 2025/05/05). Badalonan, aldiz, Errege Magoen kabalgata auzorik populatuenetik igarotzean gaztelerara aldatzea bazterkeria gisa gaitzetsi zuten (*El Periódico de Catalunya*, 2025/01/07), hizkuntza katalana kohesio-elementutzat hartzen dutelako.

Horrenbestez, arrazakeriak ekarritako pribilegio zuria borrokatzea kazetaritza feminista intersektionalaren egitekoa da. Herrikide arrazializatuak islatu, estereotipoak borrokatu, salbatzaile zuria arbuia eta gizarte-kohesioa landu. Horretarako gakoa, ezinbestean, antiinperialismoa da. Ikusi dugunez, zapalkuntza bateko kide izateak ez gaituelako beste zapalkuntzetarako sentiberago egiten. Are gehiago, arrazakeria pairatzeak edo antiarrazista izateak ez digu beste arraza batzuetako kideak zapaltzea eragozten.

6.3. Klase-Pribilegioa

Klase-pribilegioak erakusten du maila jakin batean jaiotzeak ongizatea bermatzen dituzten baliabideak eta aukerak dakartzala, hala nola hezkuntza, kultura, osasun-arreta eta lana. Klase-pribilegioak eragina dauka emakumeen aurkako indarkerian: dirudunek ondorio arinagoak edukitzen dituzte (Essue, 2025).

Unibertsitatean ere klase-pribilegioarekin lotutako bi adibide argi ditugu. Alde batetik, unibertsitate-mailako jakintza akademikoa zabaltzeko Sci-Hub doako plataforma sortu zuen Alexandra Elbakyan informatikariak, ezagutza zientifikoa giza eskubidetzat hartuz. Horri esker, unibertsitateko irakasleok argitaratzen ditugun ikerketen emaitzak doan irakur daitezke. Beste aldetik, unibertsitatean ere antzeman daiteke klase-pribilegioa, nortzuek ordaindu behar izan duten *pernada* akademikorako eskubidea, *ius primae investigationis* delakoa, hau da, tesi-zuzendariak haien lanaren inguruko artikuluak sinatuko dituen ala ez. Gurasoen maila soziala unibertsitate-mailakoa ez bada, langileak badira, haien seme-alabek *pernada* akademikoa ordaintzeko aukera handiagoak dauzkate.

Hala ere, klase-pribilegioa daukatenez, beren ongizatea bermatzeko baliabide eta aukerak eduki dituztenez, ez dute pribilegiarik antzematen. Alderantziz, egindako ahaleginei egozten dizkiete lorpenak. Horrela, meritukraziak ezkututzen du klase-pribilegioa.

Horrenbestez, intersektionalitateak askotariko zapalkuntzak azaltzen baditu ere, zapalkuntzen zatiketa ekidin gura du, ez du zapalkuntza bakoitza bere aldetik identifikatu gura. Alderantziz, intersektionalitateak azaltzen du zapalkuntza batek beste bat areagotzen duela. Ikusi bezala, arrazak klase-osagaia dauka, txiro gehienak pertsona arrazializatuak direlako. Jakina, badira buruzagi edo dirudun arrazializatuak. Hala ere, arrazak, berez, maila sozialaren pertzepzioa jaisten du.

Aldi berean, arrazaren ardatza kontuan hartu barik, klase-zapalkuntzaren esperientzia guztiak parekatzeak pribilegio zurian sakontzea dakar, pertsona arrazializatuei arrazakeriak galera ekonomikoa ere ekartzen dielako eta alde hori ezkutatuko genukeelako. Alde horretatik, euskalduntasuna ez da klase-zapalketarekin lotzen, arraza lotzen den neurrian.

Era berean, klase-zapalkuntzak sexu/genero-sisteman eragiten du. Begi-bistako eremu-banaketa dakar: publikoa, gizonena; pribatua, emakumeena. Dela lana (ordaindutakoa, gizonena; doakoa, emakumeena), dela bizimodu-esparrua (publikoa, gizonak; pribatua, emakumeak). Gainera, bi zapalkuntza horien eragina azaltzeko, arrazaren ardatzak zehaztasun handiagoa ekarriko du.

7. Ondorioak eta eztabaida

Kazetaritza feminista kazetaritza profesionala da, kazetaritza objektiboa; gainera, ikuspegi feministadun kazetaritzaren kasuan bezala, bere kontzientziak profesionalagoa izatea eragiten du, zorrotza den heinean. Gomendio tradizionalak ez bezala, artikulua honetan proposatutako kazetaritza feministaren kategorizazioa ez da jarraitu beharreko jardunbide egokien zerrenda itxia, baizik eta erredakziorako eta hedabideetarako iparrorratza. Gizonezkoen pribilegioak errotik kentzea kazetaritza feministaren garapenerako bidea da, konpondu gabeko arazo zaharrentzat erantzun berriak sortzeko.

Hala ere, diskriminazio baten biktima izateak ez gaitu beste batzueganako sentiberago egiten. Zapalkuntza eta bereizkeriei aurre egongo dien kazetaritza interseksionala behar dugu. Kazetaritza feminista interseksionalak zehatzago identifikatuko ditu zapalkuntzan eragiten duten askotariko faktoreak eta gizarte berdinzaleagoa agertuko du, pertsona guztion askatasuna helburu izanik. Izan ere, zapalkuntza bat jasateak ez du saihesten beste zapalkuntza batzuetan zapaltzaile izatea. Horregatik, errealitatea modu neutroan islatzen duen kazetaritza profesionalak ez du injustiziarik borrokatzen. Aldiz, kazetaritza feminista interseksionalak bakarrik lagun dezake menderakuntza sozialak kaltetutako pertsonen bizitza hobetzen. Hasteko, ikusgai eginez eta, beraz, subjektu.

8. Bibliografía

- DIAMOND, Darla; PFLASTER, Petra eta Lea SCHMID (2017): *Lookismus. Normierte Körper, diskriminierende Mechanismen und (Self-)Empowerment*, Unrast, Münster.
- EL AADDAM, Safia (2024): *España ¿racista? Una historia muy actual sobre las raíces del odio y nuestro pasado colonial*, Somos B, Bartzelona.
- ESPINOSA MIÑOSO, Yuderkis (2016): "De por qué es necesario un feminismo descolonial: diferenciación, dominación co-constitutiva de la modernidad occidental y el fin de la política de identidad", *Revista Solar*, 12(1), 141-171.
- ESSUE, Beverley M.; CHADAMBUKA, Cyndirela; PEREZ-BRUMER, Amaya; ARRUDA-CAYCHO, Isabel; TOCALLINO, Danielle; BALASA, Rebecca; NAMYALO, Prossy Kiddu; RAVANERA, Carmina; KAPLAN, Sarah (2025): "Women's experiences of gender-based violence supports through an intersectional lens: a global scoping review". *BMJ Public Health*, 3.
- GALLEGO AYALA, Juana (2002): *La prensa por dentro: producción informativa y transmisión de estereotipos de género*. Ed. Amelia Romero, Bartzelona.
- GOROSARRI, Maria (2025): "La violencia machista como tormenta mediática en los medios vascos", *IC: Revista Científica de Información y Comunicación*, 22, 175-201.
- GOROSARRI, Maria (2024): "Periodismo feminista: una aproximación conceptual", *Historia y Comunicación Social*, 29(2), 489-497.
- GOROSARRI, Maria (2021): *Contra la banalización del feminismo*, Txertoa (Elkar), Donostia.
- GUTIÉRREZ PAZ, Arantza eta Itxaso FERNÁNDEZ ASTOBIZA (2021): "Kazetaritza feminista Hego Euskal Herrian", *hemen: MIMENZA, Libe eta Hibaí CASTRO (arg.): Euskal Hedabideen Urtekaria, Behategia*, Leioa, 161-193.
- hooks, bell (2015): *Feminist Theory. From Margin to Center*, Routledge, New York.
- KAMAL, Hala (2021): "Alternative Egyptian feminist journalism: the case of Wlaha Wogoh Okhra", *Journal of the African Literature Association*, 15 (3), 413-428.
- LERNER, Gerda (1993): *The Creation of Feminist Consciousness: From the Middle Ages to Eighteen-Seventy*, Oxford University Press, Oxford.
- LIENAS, Gemma (2019): *El diario violeta de Carlota*, Planeta, Bartzelona.
- MACHARIA, Sarah (2021): "6th Global Media Monitoring Project (GMMP)", *hemen dago eskuragarri: [https://whomakesthenews.org/wp-content/uploads/2022/03/GMMP-2020-Spa.FINAL-2022-0303.pdf]*.
- MANNE, Kate (2020): *Entitled. How Male Privilege Hurts Women*, Allen Lane, New York.
- MATUD, M. Pilar, ESPINOSA, Inmaculada eta Carmen RODRÍGUEZ WANGÜEMERT (2021): "Women and men portrayal on television news: a study of Spanish television newscast", *Feminist Media Studies*, 21, 2, 298-314.
- MONROY, Maitena (2023). *Autodefensa feminista: Más allá de aprender a decir no*. Vergara, Madril.
- OYĚWÙMÍ, Oyèrónké (2023): *La invención de las mujeres. Una perspectiva africana sobre los discursos occidentales del género*, Virus, Bartzelona.

PÉREZ-PONS, Eva (2023). *Erresistentziarako gorputzak: bollerak*. Lisipe 13 (Susa), Zarautz.

REVERTER, Sonia (2022): *Feminismo sin testamento*, Universitat Jaume I, Castelló.

STANLEY, Timothy J. (2024). Anti-Chinese Racism and the Structure of White Supremacy: An Anti-essentialist Antiracist Perspective on Canadian History. *Canadian Historical Review*, 105 (1), 55-73.

ZAKARIA, Rafia (2023): *Feminismo zuriaren aurka*, Elkar, Donostia.

1. **Garapenari buruzko pentsamenduaren bilakaera: teoriak, estrategiak eta adierazleak.** Luis Guridi, Hegoa Institutua Ekonomia Aplikatua I Saila. 2017.
2. **Garapena eta iraunkortasuna: bilakaera, bateragarritasuna eta ikuspegiak.** Iker Etxano Gandariasbeitia, Ekonomia Aplikatua I Saila, UPV/EHU. 2017.
3. **Garapena feminismotik aztertzen.** Yolanda Jubeto Ruiz, Mertxe Larrañaga Sarriegi, Hegoa Institutua, Ekonomia Aplikatua I Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
4. **Garapenerako lankidetza eta bere bilakaera.** Irati Labaien Eiguren, Jorge Gutiérrez Goiria, Hegoa Institutua, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
5. **Amildegiairi so: krisi ekosozialari aurre egiteko zenbait oinarri.** Joseba Azkarraga Etxagibel, Soziologia Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
6. **Migrazioak eta garapena Win-win agertokia posible ote?** Gorka Moreno Márquez, Xabier Aierdi Urraza, Ikuspegi – Euskal Immigrazioaren Behatokia. Euskal Herriko Unibertsitatea.
7. **Ekonomia soziala: Ikerketa-objektua eta analisirako lanabesak.** Enekoitz Etxezarreta Etxarri, Juan Carlos Pérez de Mendiguren Castresana, Ekonomia Aplikatua I Saila. Gezki Institutua. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU. Enpresen Antolaketa Saila. Hegoa Institutua. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
8. **Globalizazioa eta tokiko garapena.** Mikel Zurbano, Elena Martinez Tola, Xabier Gainza, Pablo Arrillaga, Ekonomia Aplikatua I Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea.
9. **XXI. mendeko pobrezia. Benetan ezabatzeko proposamenak.** Alfonso Dubois Migoya, UPV/EHUko irakasle erretiratu, Hegoa Institutua.
10. **Elikadura-sistemak: Elikadura Burujabetzaren eta Agroekologiaren estrategia askatzaileak.** Efen Areskurrinaga Mirandona, Ekonomia Aplikatua I UPV/EHU eta Hegoa Institutua. Mirene Begiristain Zubillaga, Finantza Ekonomia II UPV/EHU eta Hegoa Institutua. Eduardo Malagón Zaldua, Ekonomia Aplikatua V UPV/EHU Hegoa Institutua.
11. **2030 Agenda eta Garapen Jasangarrirako Helburuak: jatorria, edukia eta jarraipena.** Andrés Fernando Herrera Herrera, HEGOIA Institutua, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).
12. **Gobernantza eta herritarren partaidetza.** Jone Martínez-Palacios, Andere Ormazabal Gaston, Igor Ahedo Gurrutxaga, EHUKo Politika Zientzia eta Administrazio Saileko kideak eta demokrazia partizipatiboari buruzko Parte Hartuz ikerketa-taldeko ikertzaileak.
13. **Gatazka armatuak, bakea eta garapena.** Itziar Mujika Chao eta iker zirion landaluze, UPV/EHUko Nazioarteko Zuzenbide Publikoa, Nazioarteko Harremanak eta Zuzenbidearen Historia Saileko irakasleak, eta Hegoa Nazioarteko Lankidetza eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutuko ikertzaileak.
14. **Finantza etikoak, ekonomia solidarioa sustatzeko tresna ekonomikoak eta politikoak.** Cristina de la Cruz-Ayuso, Deustuko Unibertsitateko irakaslea eta ikertzailea. Pedro Arrupe Giza Eskubideko Institutua.
15. **Merkatu soziala: Ekonomia Solidarioa hedatzeko estrategia.** Carlos Askunze Elizaga, REAS Euskadi. María Angeles Díez López, UPV/EHUko Hegoa Institutua eta REAS Euskadi.

16. Kontabilitate Finantzarioaren begirada zabalduz Gizarteari eta Naturari buruzko informazioa. Gizarte Kontabilitatearen jatorria, eboluzioa eta etorkizuneko erronkak. Ainhoa Garayar, Ekonomia eta Enpresa Fakultatea –Gipuzkoako Atala–. Maider Aldaz, Ekonomia eta Enpresa Fakultatea –Gipuzkoako Atala–. Igor Alvarez, Ekonomia eta Enpresa Fakultatea –Gipuzkoako Atala–. Jone Arocena, Gestoría Aguirre Gestión.
17. Txina: Garapen eredua birbideratzea eta munduko ekonomian zeregin berria. Juan Barredo-Zuriarrain, Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomia Aplikatua I Saileko irakasle laguntzailea. Ricardo Molero Simarro, Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Egitura Ekonomikoko eta Garapenaren Ekonomia Saileko irakaslea.
18. Happykrazia: psikologia positiboaren hedapena eta bizitzaren psikopatologizazioan duen eragina. Maria Lopez Castillo, HEGOA/EHUko Globalizazioa eta Garapena Masterreko ikasle ohia. Galdakao-Usansolo Ospitaleko erizaina.
19. Herri Administrazioaren eraketak: berdeak, sozialak, berritzaileak... arduratsuak. Artizar Erauskin, Ekonomia Aplikatua I Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
20. Klima-aldaketari buruzko hitzaurrea: inpaktuak eta egokitzaipena. Elisa Sainz de Murieta, Basque Centre for Climate Change (BC3), 48940 Leioa. Marta Escapa1, Basque Centre for Climate Change (BC3), 48940 Leioa, Analisi Ekonomikoko Saila, EHU.
21. Sumak kawsay, buen vivir, bizitze ona: Garapenari alternatiben bila. Unai Villalba-Eguiluz, UPV/EHUko Ekonomia Aplikatua Saileko irakasle-ikertzailea. Ekonomia eta Enpresa Fakultatea-Araba.
22. Errenta eta aberastasun banaketaren desparekotasuna munduan. Patxi Zabalo Arena. Ekonomia Aplikatuko Institutua eta Hegoa Institutua, UPV/EHU.
23. Pobrezia generoaren ikuspegitik aztertzeo gakoak. M^a Luz de la Cal Barredo. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea. Lan Harremanen eta Gizarte Lanaren Fakultatea.
24. Nazioarteko merkataritza globalizazioaren garaian: aurrekariak, ezaugarriak, arauak, eztabaidak, eta ingurumariak. Eduardo Bidaurretzaga Aurre, Elena Martinez Tola. Hegoa-UPV/EHU.
25. Turismoa garapen-tresna gisa lurralde pobretuetan. Josu Benito Andikoetxea. Garapena eta Nazioarteko Lankidetzeta Masterreko ikasle ohia. HEGOA Institutua UPV/EHU.
26. Etxebizitza beharra eta ekonomia kolaboratiboa: cohousing fenomeno. Maddi Montero. Ekonomia eta Enpresa zientzietan Graduatua da. Aitziber Etxezarreta. Ekonomian doktorea eta UPV/EHUko Ekonomia Aplikatua Saileko irakaslea da, eta GEZKIko (Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboaren Institutua) idazkaria.
27. Megaproiektuak Hazten ari den fenomeno korporatibo baten ikuspegi globala. Gonzalo Fernández. OMAL-Paz con Dignidad elkarteko ikerlaria. Erika González. OMAL-Paz con Dignidad elkarteko ikerlaria. Juan Hernández. OMAL-Paz con Dignidad elkarteko ikerlaria. Pedro Ramiro. OMAL-Paz con Dignidad elkarteko ikerlaria.
28. Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza edo itxaropenaren alde borrokatzeo erronka. Gema Celorio Díaz. Hegoaren Hezkuntza Taldea. Juanjo Celorio Díaz. Hegoaren Hezkuntza Taldea. Amaia del Río Martínez. Hegoaren Hezkuntza Taldea. Iris Murillo Hidalgo. Hegoaren Hezkuntza Taldea.
29. Komunikazioa eta garapena: joan-etorriko bidaia bat. Laura Feal Sánchez.
30. Munduko ekonomiaren erronka demografikoak. Ángeles Sánchez Díez. Madrilgo Unibertsitate Autonomoa.

31. **Zaintza eta zahartzaroa: XXI. mendeko erronkak.** Matxalen Legarreta-Iza. Soziologia eta Gizarte Langintza Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU. Uzuri Castelo Moñux. Soziologia eta Gizarte Langintza Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU. Alaitz Uriarte Goikoetxea. Soziologia eta Gizarte Langintza Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU. Maider Barañano Uribarri. Soziologia eta Gizarte Langintza Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU. Marina Sagastizabal Emilio-Yus. Soziologia eta Gizarte Langintza Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
32. **Ekofeminismoak. Bizitzari eustea eta gorputza-lurra lurraldea zaintzea.** Amaia Pérez Orozco. Colectiva XXK. Feminismoak, pentsamendua eta ekintza.
33. **Sexu eta genero aniztasuna aztertzeako gakoak.** Aimar Rubio Llona. Hegoako Kolaboratzailea, UPV/EHU.
34. **Zientzia eta feminismoak: zientziari bizitzaren iraunkortasunetik begiratzen.** Vane Calero Blanco. Sorkin, alboratorio de saberes / jakintzen iraultegia.
35. **Garapen jasangarriaren oinarri esentzialistak. 2030 Agendaren inguruko gogoeta filosofikoa.** Juan Telleria. Filosofia Saila, PRAXIS ikerketa taldea eta Hegoa Institutua. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
36. **Inurriak baikin.** Kolapsoa ez da saihestezina gizarte konplexuetan. Gorka Bueno. Ekopol ikerketa-taldea. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
37. **Gizarte desberdintasunak osasunean: zer eragin dute euskadiko herritarrengan?** Amaia Bacigalupe. Soziologia eta Gizarte Langintza Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU). Osasunaren Gizarte Determinatzaile eta Aldaketa Demografikoari buruzko Ikerketa Taldea – OPIK. Erika Valero. Osasunaren Gizarte Determinatzaile eta Aldaketa Demografikoari buruzko Ikerketa Taldea – OPIK. Erizaintza 2 Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU). Yolanda González-Rábago. Soziologia eta Gizarte Langintza Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU). Osasunaren Gizarte Determinatzaile eta Aldaketa Demografikoari buruzko Ikerketa Taldea – OPIK. Unai Martín. Soziologia eta Gizarte Langintza Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU). Osasunaren Gizarte Determinatzaile eta Aldaketa Demografikoari buruzko Ikerketa Taldea – OPIK.
38. **Zer da Desazkundera?** Adrián Almazán. THECO ikerketa-taldea, Madrilgo Karlos III.a Unibertsitatea.
39. **Etika eta garapena.** Imanol Zubero. Soziologia eta Gizarte Langintza Saila, UPV/EHU.
40. **Lanaren Ekonomia, lan merkatuaren azterketa soziologikotik Euskal Herriko lan harremanen garapen juridikora arte.** Endika Alabort Amundarain. Euskal Herriko Unibertsitatearen Politika Publikoak eta Historia Ekonomikoko Saileko irakaslea. Andrea de Vicente Arias. Euskal Herriko Unibertsitatearen Enpresa Zuzenbidea eta Zuzenbide Zibila Saileko irakaslea. Eki Etxebarria Respaldiza. Herriko Unibertsitatearen Soziologia eta Gizarte Langintza Saileko irakaslea. Jon Bernat Zubiri Rey. Euskal Herriko Unibertsitatearen Ekonomia Aplikatua Saileko irakaslea.
41. **Zientzia eta Teknologiari begirada giza garapenetik eta eraldaketa sozialetik.** Unai Villena Camarero, Joseba Sainz de Murieta Mangado. Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).
42. **Genero zeharkakotasunetik intersektionalitatera: genealogiak, garapen instituzionala eta eraldaketarako aukerak politika publikoetan.** Uxue Zugaza Goienetxea, Miriam Ureta García. Politika eta Administrazio Zientzien saileko irakasle eta ikerlariak, eta Parte Hartuz ikerketa taldeko kideak.
43. **Kazetaritza feminista: intersektionalitatea txertatzeko ahalegina.** Maria Gorosarri González. EHuko irakaslea eta ikertzailea.

